

ZENBAT

HITZAURRE GISA

Olatz Altuna

Neurketaren koordinatzailea

Helbide elektronikoa: olatz@soziolinguistika.org

“Zenbat erabiltzen da euskara kalean?” Galdera horixe da, bere horretan, hemen aurkezten den ikerketa motibatu duena. Galdera horri erantzun nahiak eraman gintuen kale-erabilera neurtzen hastera, eta halaber ekarri gaitu, neurraldiz neurraldi, honako honetara.

“Zenbat” da, hortaz, hartu den galdetzailea, eta ez “noiz” edo “nola”. Izan ere, datu kuantitatiboak jasotzera jo baita ikerketan. Iritziak eta jarrerak alde batera utzita, zenbatekoan jarri da fokua.

“Zenbat erabiltzen da” diogu, nabarmentzeko ezagutzak ez, baizik erabilerak duela garrantzia esku arteko lan honetan. Ahozko erabileraz ari gara, edozein pertsonak edozein pertsonarekin komunikatzeko erabiltzen duenaz. Ahozko komunikazioa euskaraz izan denean, makilatxo bat jarri dute behatzaileek euskararen zutabearen, beste edozein erdaratan izanez gero, erdararen zutabearen paratu da apuntea. Erabileraren argazki kuantifikatu bat jaso da horrela.

“Kalean” erantsi diogu galderari bukaeran. Izan zitekeen, noski, eremu mugatuago batean, esate baterako, eskolan, enpresan, etxean... Eta, izatez, gero eta gehiago dira eremu mugatuagoetan egiten ari diren ikerketak metodo hau abiapuntu hartuta. Baina honakoan kalea aukeratu da, bere zentzurik zabalenean: herriko plazan, edo umeen parkean, edo tabernen eta denden ingurunean...

Horiek dira ikerketaren ezaugarri nagusiak. Horiek eta beste hau: Euskal Herri osoan egindako ikerketa da. Muga administratiboak gaindituta, Euskararen Erabileraren Kale-Neurketak Euskal Herri osora zabaldu ditu behatzaileak, eta Euskal Herri osoko argazkia jaso du objektibo angeluhandi batez.

Esan gabe doa, hortaz, zein garrantzitsua den horrelako ikuspegiz egindako ikerlana. Gehiago behar genituzke horrelakoak euskararen egoeraz eta bilakaeraz ezagutza orokorra eduki nahi izatera.

Egoera eta bilakaera, ikuspegi estatikoa eta dinamikoa, biak ala biak dira jakingarriak. 2006an egin den ikerketak ezagutza gertukoa ematen digu, une honetan euskararen erabilera zertan den erakusten du. Baina aukera ematen du, halaber, aurreko edizioak aintzat hartuta bilakaeraz gogoeta egiteko.

2006ko hau Kale-Neurketaren bosgarren aldia da. 1989an ekin zitzaion molde honetako ikerketari. Aldi hartan Siadecok garatutako metodologiaz eta EKBren sostenguaz burutu zen neurketa. Hastapena zen, bide berritzailea, metodologia aitzindaria, beste inon egiten ez zena eta hemen nahiz atzerrian ikusmira handia piztu zuena. Gero, Soziolinguistika Institutuak hartu zuen lekukoa eta azken Neurketa hau Soziolinguistika Klusterraren ardurapean burutu da. Erabilitako metodologiaren baliozkotasuna berretsi egin da edizioz edizio. Urteotako ibilbideak balio izan du metodoa eta ikerketa bera sendotzeko.

2006ko edizioan ezin izan da aurrekoetan adina datu jaso. Ahalegin handia eskatzen du Euskal Herri osoko ehunka udalerritan behaketak egiteak. Ahalegin handia eta baliabide asko behar dira tamaina honetako azterlana taxuz burutzeko. Zailtasunak zailtasun, bosgarrenez ere onik atera da Kale Neurketa eta hasierako helburuak ondo bete dira. Hala ere, aurreko edizioen pareko datu-bilketa osatzeko ez da nahi beste baliabiderik lortu, behaketa kopurua murriztu egin behar izan da eta ondorioz eskualdeko datuak ezin izan ditugu eskuratu. Ez ahal du murrizteko premiak etorkizuneko bidea markatuko!

“Zenbat erabiltzen da euskara kalean?” Horra, bada, etorkizunari begirako funtsezko galdera. Erantzuna datuetan doakizu, irakurle, adituen interpretazioekin batera. Zurea falta da, zure interpretazioaren zain daude orriok. Gogoeta komun batek emango ahal digu, iragana aintzat hartuta, oraina ondo ezagutzeko eta etorkizunean eragiteko gaitasuna.

Ikerketa hau ez zen burutuko hainbat lagunen borondate eskuzabalarengatik ez balitz. Neurtzaileok eta herrialdeetako koordinatzaileok; Rosa Ramos, Xabier Isasi eta Martinez de Luna, batzorde zientifikoko kideok; Nestor Urrestaratzu, datu-basearen egilea; Yosu Yurramendi, estatistika aholkularia; datuak aztertu dituzuen artikulugileok: zuei guztioi, mila esker. •

